

OTEIZA MUSEOA

Huarte dioenez, bisita egin aurretik eten zen teknikariaren kontratua

Erredakzioa | IRUÑEA

Jorge Oteiza Fundazio Museoaren inguruan sortutako azken eztabaidak Juan Huarte patronatuko presidentearen erantzuna eragin du. Nafarroako Gobernuko Kultura Sailaren bidez plazaratu du ohar bat, eta bertan azaldu du Pilar del Valle teknikariaren kontratua Nafarroako Parlamentuko Kultura batzordeak Altxuzara bisita egin aurretik eten zutela.

Huarte emandako azalpenen arabera, patronatuak hilaren 5ean egin zuen bilera —bisita 8an izan zen—; bilera hartan, Huartek berak, Juan Ramon Corpasek, Jose Angel Irigaraik, Xabier Morrasedek, Marisa Saenzek eta Rosalesek —museoko zuzendaria bera, boza emateko eskubiderik gabe— hartu zuten parte. «Bilera hartan museoko lan taldea osatzeko proposamena onartu zen, eta, ondorioz, Pilar del Valleren kontratua etetea, zeregin zehatz baterako zelako kontratu hori», erran du Huartek.

Huarteren hitzak ez datoz bat, ordea, Oteizaren inguruko aldeko hainbat kidek errandakoarekin. Izan ere, Xabier Morrasedek gogoratu du urtarilaren 31az geroztik egindako bilera guztiak «inpugnatuta» daudela, eta hark eta bere aldeko beste kideek ez zutela Pilar del Valleren kontratua eteteko bozik eman argitu du.

Gutunaren kopia

Pilar del Valleri bidalitako kontratua eteteko gutunaren kopia helarazi du Huartek, halaber, hedabideetara, Kultura Sailaren bitartez, betiere.

Huarte azpimarratu du baita ere, Pilar del Valle parte hartu ahal izanen duela lan taldea osatzeko aukeraketan, eta kontuan hartuko dutela teknikariak museoan egindako lana.

Del Valle Carlos Martinez funtzionarioarekin egon da hainbat urtean lanean Altxuzan. Orain biak Oteiza Museotik kanpo dira.

ARTEA. Hamabost urte bete dituen erakustaldia azaroaren 23a arte egongo da zabalik

Arte Ederretako ikus-entzunezko ikasleen lanak bildu ditu BBVak

San Nikolaseko egoitzan, EHUko ikasleen eta bi artista gonbidaturen obrak ikus daitezke

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Instalazioak, bideoa eta Internet. Hiru arte adierazpide horiek nagusi dira EHUko Arte Ederretako fakultateko ikus-entzunezko ikasleek osatu dituzten lanetan. Bakoitzak bere estiloa defendatzen badu ere, obrak ikusi, eta, gehienetan, kezka berdintsuak agertzen direla ohar-tuko da ikuslea: oroimena suspertzeko nahia batetik, eta zenbakiak —mundu digitala, alegia— irudikatzeko saiaketa bestetik. Urtero bezala —eta dagoeneko hamabosgarren deialdian daude—, BBVak San Nikolas plazan duen egoitzak Ikus-entzunezkoen azken promozio-ko ikasleen proiektuak bildu ditu, eta azaroaren 23a arte erakustaldia publikoari zabalik egongo da.

«Artelanak ondo pentsatuta daude», dio Josu Rekalde EHUko irakasleak. Ikasturte osoa beraiekin egin ostean, ikasleen lanak areto batean ikusi ahal izateak harrotu egiten du Rekalde. «Egia esateko, ordu asko sartu dituzte, eta orain hainbeste espero zuten aukera iritsi da. Batzuei obra arruntak irudituko zaizkie, izan ere, azkenaldian nagusitu den fenomenoaren



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Kezka berdintsuak agertzen dituzte EHUko ikus-entzunezko ikasleek euren artelanetan.

kontra, ikasleak ez dira ikusgarria den ezerezen bila joan».

EHUko ikasleen obrekin batera, gonbidaturiko artista biren lanak daude erakusketan: Bartzelonako Eugeni Boneten *Uses-sion* batetik, eta Valentziako Laboratorio de Luz taldearen instalazioak bestetik. Era berean, iragan ikasturtean fikzioari bu-

ruzko jardunaldi batzuetan Alex de la Iglesiak eta Julio Medemek fakultatean emandako hitzaldiak ikus daitezke. Ikus-entzunezko ikasleek beraiek grabatu zituzten haiek.

Oraindik bada zer hobetu

Azkenaldian, ikus-entzunezko artelanak geroz eta esparru za-

balagoa betetzen ari dira. Teknologia berriak normalizazio prozesu batean sartzen ari diren seinale izango ote da? Rekaldek ez du horrelakorik uste. «Hala-koak maiz entzun ditut. Modan dago, baina zer nahi duzu esatea. Artean oraindik pinturak eta eskulturak dutela azken hitza. Nahiko klasikoak gara».

ANDOAIN

JORDI BELTRANEK

Aurkezten du:


"POEMAS VISUALES" (antzerkia)



AZAROAREN 16an • 20:00etan
LA SALLE ANTZOKIAN

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea
Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Getxoko Euskararen IV jardunaldien barruan II AEROBIC MARATOIOA EUSKARAZ



Zuzeneko DJ eta
TXALAPARTA musikarekin

Azaroaren 24an, domeka
17:00etatik aurrera
Getxoko Andra Mari kiroldegian